

Juan Carlos Lopez: "Ninjitsuak aukera asko eskaintzen du"

Barakaldon jaioa da nahiz eta egun lurretan bizi den. Azken 2 urteotan, Ermuko kiroldegiko Ninjitsuko irakaslea da. Bere bizitzaren erdia judo, karate eta Ninjitsuari eskaini dizkio. Gaur egun ia 40 ikasle ditu bere aginduetara eta pozik agertu da egun kirol honek Ermuan izan duen harrerarekin.

-Nolatan hasi zinen arte martzialen munduan?

Umetan lagun taldean, futbolekin joaten nuen baina aspertu eta judoarekin hasi nintzen. 13 urte nituen. Ondoren, karatearekin probatu nuen eta azkenik Ninjitsuarekin hasi nintzen. 20 urte inguru daramatzat honetan.

-Zer da labur-labur Ninjitsua?

Japonen sortutakoa da. Ninjen borroka esanda errezago ulertzen da. Babes pertsonala eta arma ezberdinen erabilera lantzen dira. Garai batean, Samurriak, gobernuentzat gogor borrokatzen ziren baserritarren aurka. Baserritarrek orduan Ninjitsua eratu zuten samuraiei

aurre egiteko.

-Euskal Herrian oso hedatua al dago?

Gu hasi ginenean, Madril zen Estatu mailan Ninjitsua egiten zen leku bakarra. Ni eta nire irakaslea izan ginen Euskal Herrira ekartzen aurrenak. Momentu honetan, Durangon eta Ermuan irakasten da bakarrik. Estatu mailan, Bartzelona, Galizia eta Badajozera ere hedatu da.

-Ermuan duela 2 urte hasi zinen...

Nagusien talde batekin hasi nintzen eta aurtun, umeen taldea ere osatu dugu. Nagusien mailan 7 daude eta txikienetan 33. Guztira 40.

-Zein adinetako ikasleak dituzu?

5 urtetik hasi eta hortik gorakoak; adin ezberdinekoak dauzkatz.

-Zer moduz moldatzen dira?

Oso pozik nago. Nagusiekin taldea sendotzen ari da eta umeak, oso azkar ikasten ari dira.


-Zein ordutegi duzue?

Asteazken eta ostiraletan, arratsaldeko 5etatik 7etara gazteak eta 7etatik 9etara nagusiak.

-Zer eskaintzen die Ninjitsuak?

Bizitasuna, buruaren azkartasuna, mugimenduen koordinazioa... gauza asko eskaintzen ditu Ninjitsuak. Borroka era asko baino osagarri gehiago ditu. Baditu halere bere arriskuak.

-Adibidez?



Babes pertsonala lantzen da, beraz teknikak ikasten dira... Izan ditut ikasleak nire ikastaroetatik kanpo taberna eta diskoteketan ikasitakoa praktikan jarri izan dutenak. Sarritan esaten diet ikasleei: "Hona ez etorri borrokan ikastera, hau kirola da eta gozatzea gatoz, gure burua hobeto ezagutzera".

-Ninjitsuan hasi nahi duenak kontuan hartu beharrekoa...

Hasiera gogorra da. Pazientzia asko eduki behar da. Sarritan, teknika berehala ikasi nahi dute alderdi fisikoa landu aurretik. Oinarriak ondo ikasi behar dira eta hori behar den bezala ikasteko denbora dezente behar izaten da. Horrez gain, lanerako gogoa eta grina behar dira.

-Txapelketarik izaten al da?

Judoan eta karatean bezalaxe, gerriko zuriarekin hasi eta gerriko beltza lortu arte, azterketak egiten dira. Horrez gain, izaten dira txapelketak edo neurketak. Karate, judo, kung-fu edo halakoen aurka aritzea ere tokatzen zaigu. Momentuz Ermuko taldekoak ez ditut eraman, hasi berriak gara eta.

-Noiz arte jarraituko du ikastaroak?

Santixauetan amaituko dugu aurtengo. Irailaren amaieran itzuliko gara berri.

Asier Ibaibarriaga




DERMOESTETIKA ZENTRO INTEGRALA

PILAR

ESTETIKA MIXTO ESPEZIALIZATUA
KIROMASAJEA, MEDIKUNTZA HOMEOPATIKOA

ZUBIAURRE 24, 1. ESK.

943 17 30 66



GURE AMETSA

**Gure dantza
Zure dantza**

Gureametsataldea@hotmail.com